

ONCE (Espainiako Itsuen Elkarte Nazionala)



San Prudentzio kalea 18, etxabea, 01005 Vitoria-Gasteiz

945 15 06 70

ctpaisvasco@once.es

www.once.es

2018an 80. urteurrena ospatu zuen ONCEk, eta zerbitzu espezializatuan konprometituta dago, itsutasuna edo ikusmen-desgaitasun larria duten pertsonen eguneroko lanak (desplazamendua, norberaren zaintza, etxeko lanak, informaziorako sarbidea, etab.) egiteko ahalik eta autonomia-mailarik handiena emateko, baita ikusmena galtzearen inpaktura modu positiboan egokitzeko baliabideak emateko ere. Era berean, pertsona kolektibo horren hezkuntza-, lan- eta gizarte-inklusioa sustatzeko zerbitzuak ematen ditu.

Laguntza psikosoziala, errehabilitazioa, komunikazioa eta informazioa eskuratzea, hezkuntza-arreta, enplegurako laguntza, kultura-, aisialdi-, arte- eta kirol-sustapena eta gizarte-ongizateari laguntzea. Gainera, arreta pertsonalizatuko zerbitzu horiek bibliografia-egokitzapeneko jardura eta baliabideekin, laguntza tekniko espezifikoekin, animazio soziokulturalarekin, boluntariorarekin eta abarrekin osatzen dira.

Gure lurraldean antolatzen dituzten beste jardura batzuk kaskaniloen lasterketa eta ardazki-lehiaketa dira.

Fundación Vital Fundazioaren lankidetz

1995ean hasi zen Vital Kutzaren gizarte ekintza ONCE erakundeari laguntza ematen afiliatuen eguna ospatzeko. Egun hori urtero txandakatzen zen euskal lurralde bakoitzean. Urteak igaro ahala, afiliatuen eguna ONCEren Astea bihurtu zen.

Ondoren, 2000. urtetik aurrera, erakundeak 'Guztiontzako mundua, ezintasunak gainditzen' Argazki Lehiaketa garatzen lagundu du. 2005az geroztik, 'Kaskabiloen Lasterketa' ere babestu dugu, bikoteka itsuan korrika egiteko esperientzia bat, parte-hartzaileetako batek begiak estalita eta soka baten bidez elkartuta. Gainera parte-hartzaile guztiek kaskabilo bat daramate itsuentzako entzumen-seinale gisa. Helburua herritar guztiak sentibilizatzea da, desgaitasuna duten pertsonen gainditu beharrekoaren berri emanez.

Erakundea Vital Fundazioa bihurtuta, programa horiek babaesteko lankidetz-hitzarmenei eusti diete.